



**2023KO OTSAILAREN 23KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko otsailaren hogeita hiruan, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Iñaki Eskisabel Zurututza kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko urtarrilaren 26an egindako ohiko bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- 2023 URTERAKO UDAL LANGILEEN ORDAINSARIAK.-

31/2022 Legeak, 2022ko abenduaren 23koak, eta 2022ko abenduaren 24ko B.O.E.n argitaratu zenak, 2023 urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorrak sektore publiko langileen ordainsariei dagokionean, gehienez ere % 2,5eko igoera baimentzen du.

EUDELeK, 2023ko urtarrilean, zirkular bat atera du horren berri emanez eta sektore publiko langileen ordainsariak % 2,5 igotzeko gomendioa eginez.

Hori horrela, udal langileen 2023ko ordainsariak, 2023ko urtarrilaren 1etik, %2,5 igotzea planteatzen da.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioa hartu du: udal langileen ordainsariak %2,5 igotzea, eta igoera 2023ko urtarrilaren 1etik hasita aplikatzea.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuci buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du aurka bozkatuko dutela, 2 kreditu aldaketa horietatik batekin ez daudelako ados, eliza eta ikastola arteko Agauntza erreka gaineko oinezko zubiaren obrari dagokion kreditu aldaketarekin hain zuzen ere.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botoz (EAJ-PNV), eta aurkako 6 botoz (EH Bildu), honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	88.000,00
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		88.000,00 €



FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	88.000,00 €
GUZTIRA		88.000,00 €

Bigarren.- Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- UDAL ONDAREAREN INBENTARIOAN SARTUTAKO LAZKAOMENDIKO ESKOLA ZAHARRAREN DESKRIBAPENA ALDATZEA.-

Aurrekari gisa, eta aplikatu beharreko araubide juridikoari dagokionez, honako hauek aipatzen dira:

- 1.- Lazkaoko Udalaren Ondarearen Inbentarioan, 1.01.01.05 Kodearekin, lehen Lazkaomendi auzoko eskoletarako erabili zen eraikina dago. Bertan ageri den deskribapena ez dator bat errealitate fisikoarekin, eta finka ez dago Jabetza Erregistroan inskribatuta.
- 2.- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 32. artikulua ezartzen duenez, administrazio publiko orok bere ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen inbentarioa egin behar du, eta behar besteko xehetasunez jaso behar ditu ondasun eta eskubide horiek identifikatzeko behar diren aipamenak, haien egoera juridikoa eta erabiltzen ari diren erabilera islatzeko beharrezkoak direnak.

Bestalde, 33/2003 Legearen 36. artikulua ezartzen du Toki-Erakundeek nahitaez inskribatu behar dituztela ondasun higiezinak eta eskubide errealak Jabetza Erregistroan, hipoteka-legerian aurreikusitakoaren arabera.

Aurreikuspen hori ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 36.1 artikuluan ere jasota dago.

Erlazionatutako aurrekariekin bat etorritik, Osoko Bilkurak aho batez, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- Udal Ondarearen Inbentarioan aldatzea garai batean Lazkaomendi auzoko eskoletarako erabili zen eraikinari buruzko deskribapena. Deskribapen berria erabaki honen eranskinean agertzen denaren arabera izango da.

BIGARRENA.- Tolosako 2 zenbakiko Jabetza Erregistratzaileari eskatzea bere karguko liburuetan inskribatu dezala aipatutako ondasuna, betiere, Hipoteka Legearen 206. artikulua jasotzen duenaren arabera.



VI.- 2023KO MARTXOAREN 8RAKO EAJ-PNVK AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA.-

Naldaiz zinegotziak (EAJ-PNV) irakurri duen adierazpenak honakoa dio:

"2023KO MARTXOAREN 8RAKO ADIERAZPENA

25 urte baino gehiago igaro dira, Bejjineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabakiak hartzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa hartu zenetik. Nahiz eta aurrera-kuntzak izan diren, munduko herrialde gehienek ez dute genero berdintasunik lortu, eta gutxi batzuk bakarrik ezarri edo bete dituzte sexuen arteko berdintasunean asmo handiko helburuak.

Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu nahi dira, berdintasun-arrakalak gutxitzeko asmoarekin, arrakala horiek gizartearen zati handi batentzat handitu direlako eta, batez ere, emakumeentzat. Orain da liderrak izateko garaia, erakundeak eta gizartea eraldatzeko harreman-eredu askoz ere inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak lortzeko. Sektore anitzeko lankidetzako gobernantza feministaren eredu baterantz aurrera egin behar da, elkar entzutean oinarrituz, baita botere eta erantzukizunen banaketa eta partaidetza-prozesuak abian jartzean ere.

Mugimendu eta talde feministak eta emakumeenak, aniztasunean eta belaunaldien artean, berdintasunaren inguruko hainbat gai salatzen eta eskatzeko mobilizatzen ari dira. Adibidez, arrazakeriaren kontrako justiziatik hasi eta soldata-berdintasuneraino, indarkeriaren amaiera eta emakumeen aurkako diskriminazioa, sexu-jazarpenaren ezabatzea, klimaren aldeko justizia, bakea mantentzea, eta hainbat gehiago.

Emakumeek politikan eta erabakiak hartzerakoan berdintasunean parte hartzea eta lidergoa izatea funtsezkoak dira, 2030an, Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko. Hala ere, tokiko eremutik orokorrera, emakumeen parte-hartzea mugatua izaten jarraitzen du, alderdi formaletako erabakiak hartzerakoan, besteak beste, politika gaietan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, unibertsitatean, sindikatuetan, elkarte eta kooperatibetan, eta beste hainbat sektoretan.

Martxoaren 8 honetan, emakumeen nazioarteko egunean, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo partekatuen eredu batetik abiatuta. Era berean, berdintasun arloan erabakiak hartzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egin behar da. Emakumeen parte-hartzea ikuspegi askoz ere zabalago batetik ulertu behar da, ez bakarrik ikuspegi formal edo arau-mailetik. Emakumeek erabakiguneetan parte hartzeko dituzten baldintzak aldatu behar ditugu.

Emakumeen parte-hartzearen alde lan egiteko, beharrezkoa da...



**LAZKAOKO
UDALA**



- *botere-espazioak partekatzea eta uzteak eragozten dituzten **erresistentziei eta inertziei** aurre egitea. Horretarako, kristalezko sabaiak hautsi behar dira, espazio guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi interseksionalarekin emakumeen presentzia bermatuko duten neurriak ezarri.*
- ***zaintza-lanen banaketa erantzunkidean** aurrera guztiz egitea, justizia-printzipioa delako eta emakumeen gainkargak herritartasun osoa egikaritzea mugatzen duelako.*
- ***zaintza** eta bestelako lan feminizatuen **sektore profesionala** prekarizatuak balioes-tea, eta sektore horri gizarte-balioa aitortzea, bere baldintzak hobetuz.*
- *emakumeek lidergoetan duten konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen duten **estereotipo eta aurreiritziei** aurre egitea.*
- ***emakumeen aurkako indarkeria**-mota guztiak desagerraraztea, baita emakumeen aurkako indarkeria politikoa ere.*
- ***lidergoan jarduteko praktikak eta moduak** deseraikitzea, besteak beste, menderatzean oinarritutako eredu androzentrikoak, zaintzaren denborak eta erantzukizuna kontuan hartu gabe, emakumeen eta boteretik baztertutako beste kolektibo batzuen talentua eta jakintzak mesprezatuz, eta talde-lana ez baloratuz.*
- ***emakumeen eta nesken eskubideak** ikuspegi interseksionala, berritua, erradikala eta eraldatzailea duen agenda feministaren erdigunean jartzea, emakume horiek boterean duten bazterketa sistematikoari aurre egiteko eta desberdintasun-arrakalak murrizteko.*

Horregatik, euskal udalerririk, gure eskumenen markoan, **konpromisoa hauek hartzen ditugu**: emakumeen lidergoa bultzatzea eta boterea berdintasunean egikaritzeko baldintzak erraztea. Estamentu publiko eta probatu guztietan emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzen duten politikak indartzea da helburua, martxoaren 3ko 1/2022 Legean, Emakume eta Gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldatetari buruzkoan, ezarritakoaren arabera:

1. *Emakumeen Etxeak sortzeko prozesu parte-hartzaileekin hastea, udalerrri bakoitzaren beharretara egokituta.*
2. *Ahalduntze programak eta eskolak baliabide eta leku egokiez hornitzea.*
3. *Mugimendu feministaren eta emakume-elkarteen parte-hartzea indartzea, emakumeen/berdintasunaren tokiko kontseiluetan, erabaki partekatuak hartzeko konpromiso sendo batetik abiatuta.*
4. *Berdintasun-planen interseksionalitatea indartzea gure gizartea osatzen duten eremu guztietan, emakumeek beraien aniztasunean duten parte-hartze osoa eta eraginkorra finantzera iristeko.*
5. *Adinaren eta generoaren arabera bereizitako datuak sortzea, 1/2022 Legearen agindua dakarrena kontuan hartuz, neskatilen, neska nerabeen eta emakumeen bizitzetan eragin zuzena izango duten politikak egiteko informazioa emateko.*

6. Politikan sartzen diren emakumeentzako ikaskuntza- eta ahalduntze-guneak antolatzea, emakume hautetsien arteko laguntza-, elkartasun- eta aliantza-sareen bidez, adibidez, Basqueskola Sarea, edo beste sare batzuk.

7. EUDEleri eskatzea, indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposa ditzala, emakumeen parte hartzeari eta erabakitze gaitasunari buruzko ikerketa bultzatzea eta ordezkariak orekatu baterantz egiten diren aurrerapenak babes ditzala.”

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio bat datozela adierazpenarekin eta aldeko botoa emango dutela. Baina horrez gain, feministekin egon direla eta haiek aurreko zaintza erdigunean jarrita beste aldarrikapen bat egin dutela. Horrekin bat eginez, EH Bilduk adierazpen gehigarria aurkeztu du.

Hau honela izanik, Osoko Bilkurak aho batez onartu du EAJ-PNVk aurkeztutako adierazpena.

VII.- MARTXOAREN 8RAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN GEHIGARRIA.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) irakurri duen adierazpen gehigarriak honakoa dio:

“MARTXOAREN 8A: ZAINTZEN DUEN HERRIA HELBURU”

Adierazpen gehigarria

Zaintzen krisi batean murgilduta gaudela dioten ahotsak aspalditik datoz, eta toki ezberdinetatik. Esan dugu behin baino gehiagotan, pandemiak agerian utzi duela feminismoa aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaugarria eta mendekoa da. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eusteko apustua egiteko unea da. Horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Krisia azaleratzeak batzuegan paralisia eragiten du, baina gu mugimendu feministaren deiarekin lerrotatzen gara, eraldaketari ekiteko. Diskurtso hutsalak zokoraturik, elkarlanean sistema publikoa defendatzeko bideak eraikitze garaia da.

Izan ere, herritar guztion bizitzek ez dute berdinean balio gure herrian, eta bizitza horien zaintza ez da modu berean egiten. Gogor salatzen ditugu zaintzarekin negozioa egin eta eskubidea merkantzia bilakatzeko duten politikak eta enpresa kapitalistak. Zaintza merkantilizatzean eta familiakotzean datza egun sustatzen den eredu, eta horrek etxeko eta zaintza sektoreko langileen esplotazioa dakar. Sektore hori desarautua edo, kasurik onenean, hainbat arlotako hitzarmenen menpe dago.

Egoitzetako zein etxez etxeko langileek (gehienak emakumeak) eten gabe borroka egin behar izan dute beren egoera hobetuko duten lan-baldintzak lortzeko. Izan ere, ez da inolako hobekuntzarik etorri erakundeetatik; pandemiaren ondoren ez dute inolako urratsik egin lanbidea erregulatu eta duintzeko. Feminizatutako eta prekarizatutako sektore hau da, zaintza-krisia era sexistan konpondu nahi izatearen albo-kalte bat, hain zuzen ere, zaintza-arrakalaren eragile nagusia. Ez dira behar adina ugaltu gizarte-zerbitzuetako lanpostu publikoak; zaintza-beharraren aurrean arreta publikoa murriztu egin da. Hori dela





eta, ahal izan duten familiek zerbitzu pribatuetara joan behar izan dute; eta, aldi berean, gehiegikeriazko klausulak eta neurrigabeko igoera izan dute hileroko kuotek, kasurik okerrenetan, 300 eurotik gorako igoerak. Horiek guztiak legez kanpokoak den zerbitzu-txeke ereduaren albo-ondorioak dira. 2800 familia omen daude egoera honetan Araban, Bizkai-an eta Gipuzkoan Behatuzen datuen arabera.

Premiazkoak dira krisi egoera honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak, esparru eta maila guztietan, eta ezinbestekoa da, eremu hau ere aktibatu eta soluzio berriak mahai-gaineratzen hastea. Errealitate gordin horren aurrean, gure herriak dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa- eta elkarrizketa-guneak bultzatu eta indartuz.

Horregatik guztiagatik, Lazkaoko Udalak honako hau erabaki du:

- *Zaintzaren arazoari irtenbidea bilatuko dion mahaia osatzea. Mahai horretako kide izango dira, besteak beste: udal teknikari eta kargu publikoak, eragile sindikalak, sozialak, mugimendu feminista eta bestelako herri-mugimenduak ere.*
- *Mahaiaren lehenengo eginkizuna izango da diagnostiko bikoitza egitea:*
 - *Gaur egungo zaintza-zerbitzuen diagnostiko zehatza egitea, hartzailearen ikuspegitik. Alegia, zerbitzuaren beharrea direnek baldintza egokietan jasotzen duten aztertu eta beharrezko diren hobekuntzak identifikatzea*
 - *Zerbitzu-emaelearen ikuspegitik egoeraren diagnostiko zehatza egitea: zein dira langileen egoera errealak? Nola hobetu litezke?*
- *Mahaiaren bigarren eginkizuna izango da neurriak hartzea:*

Diagnostikoa osaturik, identifikatu diren beharrak konpontzeko neurriak hartzea. Aurreikus ditzakegu: zerbitzua zabaldu beharra, langileen prekarizazioa gainditu beharra.

- *Mahaia osatzeko konpromisoarekin batera, mugimendu feministak egindako mobilizazio-deialdiekin bat egiten dugu eta herritar guztiak animatzen ditugu horietan parte hartzera.*

OHARRA: adierazpen gehigarri honek Lazkaoko Talde Feministaren atxikimendua jasodu.

Alkateak dio zaintza lehentasunetako bat dela, eta zaintzaileak ere bai. Beren lan baldintzak hobetzeko ahalegin horretan beraien ondoan egongo direla eta zerbitzua hobetzeko ahaleginak egiteko momentuan ere hor egongo direla.

Bestalde, adierazpenean proposatzen den mahaia motz gelditzen dela deritzo. Ara-
zoa orokorra dela eta soluzioak ere orokorra edo integrala izan behar duela eta mahaia
Lazkaoren gainetik osatu beharko litzatekeela.

Mahai horretan faltan botatzen dituela erabiltzaileak, baita eskumen zuzena duten administrazioak ere, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza bestek beste.

Hau honela izanik, EAJ-PNVk ezezko botoa emango du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio ez direla Lazkaora mugatzen, baina herrian ezer egin gabe geratzea ez zaiela egokia iruditzen. Eta ongi etorriak direla zerbitzuaren hartzaileak mahai horretan.

Beraz, aldeko 6 botorekin (EH Bildu) eta aurkako 7 botorekin (EAJ-PNV), adierazpen gehigarria ez da onartua izan.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

